

Goienbitarra

350. zenbakia 2008ko azaroak 7


Isabel Elorza

**AIZKORRI
ALDEKO
ARTZAINAZ
TESIA**

ALTAMIRA
JATETXEA


Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T 685 794 755 / altamira@geri.net



reklone

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
 A. Ramirez Baigorri Dra.*

Kursal
 ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

Herriko festak

Ataungo

Joxemiel Barandiaran

ikastetxeko

5. mailako haurren

bertsoak

Herriko festak badatoz eta guztiok gaude pozetan umeak behintzat ibiltzen dira dauden barraka denetan. Eta Ataungo eskolak ere opa dizue benetan: ondo pasatu dezazuela gure herriko festetan.

Etxafuego eta buruhandi tiropitxon ta barraka ta arratsalden bostak aldera pandero ta txalaparta. Zahar eta gazte, gazte eta zahar denak dantza eta kanta festa garaian beti sortzen da hemen giroa aparta.

Doinua: Andre Madalen

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Kolaborazioa: Inazio Usarralde.

5. Ingurugiro txokoa: Ondare geologikoa.

6. Euskara txukuntzen: Oseake, etorri zitzaizuen en plan...

8. Aholkua: Iharduera fisikoa eta energia beharrak.

9. Elkarrizketa: Isabel Elorzak Aizkorri aldeko artzaintzaz tesia aurkeztu du.

16. Erreportajea: Txerri azoka Mutiloan.

18. Goierritar berriak: Lucian Mihai.

20. Kultura: Abarlotz Olano Zaldibiako kantaria.

23. Non zer.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Inazio Usarralde

Lotu euskarari

Gure hizkuntzaren geroa kezka bi-
zi dugunok negarti fama dugu gu-
re inguruan, beti kezka ez bada
purrustadaka omen gabiltza eta. Baliteke,
gainera, maila batean arrazoia izatea ho-
ri diotenek: zenbat denbora eta indar
xahutzen ote dugu urtean zehar euskara-
ri buruzko eztabaidetan? Eta askotan
printzipalena ahanzten zaigu euskal hiz-
tunoi: hizkuntza bera erabiltzea! Eta hori,
euskal hiztun bakoitzak egin beharrekoa
da. Horren ardura ez da inongo instituzio
edo erakunderen baitan bilatu behar. Az-
ken boladan, gainera, gero eta arreta
gehiago jartzen ari naiz euskaldunok
azaltzen dugun hizkuntza portaerari eta
harritzeko moduko gauzak ikusten dira.

Izan ere, pentsatzen duguna pentsa-
tzen dugula, eta ez hizkuntza kontuetan
bakarrik baizik eta gainerako alorretan ere
berdin, azaleratzen dugun portaeraren bi-
dez informazio ugari transmititzen diegu
gure ingurukoei.

Horrela, euskaldunok, eguneroko bizi-
tzan, oso erraz uko egiten diogu geure
hizkuntzari eta horrek zer pentsatua eman
beharko liguke. Batzuetan gaztelaniara al-
datuko dugu parean dugun hiztunak be-
netan euskararik ez dakielako baina, bes-
te askotan, begi-bistako inongo arrazoirik
gabe alboratu ohi dugu gure hizkuntza.
Azter ditzagun geure eguneroko harrema-

nak eta euskal hiztunen arteko elkarriket-
etan nola hitz egiten dugun. Elkarriketa
askotan gaztelania darabilgula ohartuko
gara. Eta galdera hau da: elkarriketa ho-
rietako zenbat egin ditzakegu euskaraz
oso ahalegin txikiarekin, arreta eta gogo
pixka bat jarrita?

Neu beste euskaldun batekin gaztela-
niaz ari banaiz, hara zer ari naizen trans-
mititzen, zuzenean edo zeharka:

- Neure buruari ari naiz esaten bestearen
mendean nagoela, hark euskaraz jakin
arren, gaztelaniaz egin nahi duenez, be-
re ildora naramalako. Hau bereziki larria
da haurren aurrean egiten badugu: hau-
rrei euskaraz egiten diegu baina kapaz
gara segundo batera aldatu eta helduon
artean gaztelaniaz aritzeko. Haurrei zein
eredu ari naiz ematen?
- Aldi berean, oraindik euskara ikasi ez
dutenei gaztelaniaz egiten badiet euska-
ra ikasi gabe ere hemen molda daitez-
keela esaten ari naiz.
- Ikasteko ahalegina egiten ari direnen au-
rrean gaztelaniaz egiten badut, nolabait,
adieratzen ari naizena hauxe da: ez du-
zu behar bezain ondo hitz egiten eta
gaztelaniaz egingo dugu.
- Geure herrira etorri berriak direnei, eus-
karaz egin beharrean, gaztelaniaz egiten
badiet ematen ari naizen mezua da eus-
kara ez dela beraientzat.
- Eta, jakina, beste euskal hiztunekin gaz-
telaniaz egiten badut, edonoren aurrean
eredu negatiboa ari naiz transmititzen.

Nik uste, neurri handi batean, euskal-
dunon baitan dagoela gakoa eta badela
garaia geure konplexuak eta aurreiritziak
alde batera utzi eta gauzak aldatzen has-
teko. Izan ere, Joxerra Garziak bikain esan
berri duen moduan, euskararekin lotzea
da euskara askatzeko modu bakarra.

*Euskaldunok, eguneroko bizitzan, oso erraz
uko egiten diogu geure bizkuntzari eta
horrek zer pentsatua eman beharko liguke.*




Egurrezko
lehioak,
kontraleihoak,
ateak eta
eskailerak
neurritan.



**JANTZI ZURE ETXEA
EGURREZ**

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU





Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

Ondare geologikoa

Aspaldidanik ezagutzen dugu biodibertsitateak gure ingurunean duen garrantzia. Fauna eta floraren kontserbazioak duen garrantzia geroz eta hobe ulertzen da gure gizartean. Habitataz hitz egiterakoan ere, ezin dugu ahaztu arrokek, hau da, geologiak duen garrantzia. Hain ezaguna izan ez arren, ondare geologikoa zaintzeko ekintzak poliki-poliki ari dira gurean ere ezartzen.

Ondare geologikoa

Ondare geologikotzat balio zientifiko, kultural edo hezkuntza balio berezia duen elementu geologiko oro hartzen da. 90. hamarkadatik hona ekintza ezberdinak egin izan dira ondare geologikoa kontserbatzeko, besteak beste, UNESCOren GEOSITE ekintza. Dena dela, azken urte hauetan ondare geologikoa eta geodibertsitatea babesteko legeak sortu berri dira hainbat herrialdeetan. Lege hauen laguntzaz landa eremuan garapen jasagarria bultzatzeaz gain, ondare geologiko eta baliabide geologikoen erabilpen iraunkor bat egitea du helburu. Ez dugu ahaztu behar elementu geologiko eta meategiek ere balio berri bat har dezaketela *geoturismoa* bultzatuz, landa eremuen mesedera. Egun, gure inguruan ha-



si dira horrelako ekintza berritzaileak ezartzen, adibidez Zeraingo meategietan interpretazio gune bat martxan jarritz.

Baina ondare geologikoa kontserbatzearen helburua ez da soilik ekonomikoa. Elementu geologikoen kontserbazioak geologia jendeari gerturatzea ere badu helburu: inguratzen gaituen lurraren historia, sorbera, bilakaera eta gizakiarekin izan duen erlazioa eza gutzera ematen da.

Ondare geologikoa kontserbatzearen garrantzia

Arroketa Lurraren eta bizitzaren historia erregistraturik geratzen da eta geologoen aro ezberdinetako gertaerak irakurri ahal izaten dituzte: klima aldaketak, meteoritoen jaustea, espezieen eboluzioa... Zumaian bertan dugu mundu mailako adibidea, bertako arroka geruzen artean duela 65 milioi

urte eroritako meteorito baten sortutako eta planeta guztia estali zuen errauts geruza bat kontserbatu delarik. Aizkorri edo Aralarko arroketan ere (adibide bat jartzearen) beste gertakari batzuk gordeak geratu dira, adibidez Kretazeo garaiko itsasoak ia oxigenorik gabe geratu zirenekoak. Baina ondorio hauetara iristeko zientziak bere denbora behar du eta garrantzitsuenak, elementu hauek bere horretan gorde behar dira aztertutak izan ahal izateko. Gainera, ikerketa guzti hauek zeharka bada ere aplikazio ekonomikoa izaten dute (petrolio eta mea bilatzeko edota azpiegiturak eraikitzeko).

Elementu geologikoak ondare geologiko izendatzek ez du soilik turismo-rako balio. Arroka azalera-mendu berezi horiek laborategi naturalak izaten dira, geologian aritzen diren ikerlariak lan egiteko eremu aproposa bilakaturik. Horretarako ezinbestekoa da elementu geologiko garrantzitsuenak kontserbatzea, fosilen eta mineralen expolioa debekatuz eta leku interesgarrien urbanizazioa ekidinez.

Arantxa Bodega

JAKIN BEHARREKOAK

Arabako Logroza aintzira lehengoratzeko lanak amaitu dira. Honi esker ingurumena lehen zenera itzuli da eta baita Done Jakue bidearen adarra ere. Aintzira Arminongo udalaren barruan dago eta 12 hektarea ditu. Gaienezka-bide artifiziala bete da, landa hesia ipini da, kanpoko ezer sartu ez dadin hezegunera. Lezkadiaren ohea babestu duen 2. hesi batek bermatzen du hegaztien sosegua, arrotz kaltegarrien aurka. Onurak habitat honetako espezie guztientzat izan dira eta aipatzekoa da zingira mirutzaren itzulera.

Zaborrekin estali dute Aramaioko Bolinburu erreka. Aramaio Zainduz plataformak salatu duenez Adifek enpresak, AHTren lanen ondorioz, lur kutsatuekin estali du erreka. Kristalak, plastikoa, egur eta obretako hondakinak bota dituzte. Gainera Lurralde Plan Sektorialean erreka babesgune hartu dago.

Opio orde larrosa ekologikoak Afganistanen. Deutsche Welthungerhilfe elkarteak (Alemaniar laguntza munduko gosearen aurka) 2004. urtean martxan jarri zuen. 'Nangarharentzat larrosak' proiektuaren helburua, probintzia honetako baserriarrei opioa landatu orde bestea aukera bet eskaintzea da. 300 familiak parte hartzen dute eta 42 hektarea lantzen dute, Europar Batasuneko Bio araudia betetzen duelarik 2007 urtetik.

Ondare geologikotzat balio zientifiko, kultural edo hezkuntza balio berezia duen elementu geologiko oro hartzen da.

Oseake, etorri zitzaizuen en plan...

Maizpide
euskaltegia

Hizketan ari garelarik, batez ere norbaitekin elkarriketaren bat dugunean, badira hitz “berezi” batzuk maiz antzean esaten ditugunak eta ia “edozerarako” balio dutenak. Hizkuntza guztietan izaten dira eta izan ezean, sortu egiten dira (etengabe, gainera!). Izenburua irakurri baduzue, jakin-go duzue, honezkero, zein hitzez ari garen, ezta?

Kontua da badirela hitzunik, ama hizkuntzakakoak erabiltzeko ohiturarik ez dutelako edo, erdarara jotzen dutenak. Beharbada, hizkuntza “biziagoa” (“guay”agoa?) erabili

nahian jokatu dute horrela, baina ez dira konturatzen kalte besterik ez diotela egiten horrenbeste maite duten hizkuntzari.

Euskara, zoritxarrez, ez da salbuespena eta gaztelania-tik hartutakoak ez ditu gutxi (gaurko izenburuari errepara-tu besterik ez duzue). Kontua da, beti ere ahalegintxo egi-nez gero, horiek ere modu txukunagoan esatea badauka-gula. Ikusi, bestela, gaurko bereziki asmatu dugun Benito artistaren eta entzuleen arteko elkarriketa xelebrea...

✗ Euskara ‘makarronikoa’

Aber, lagunok!	.Eup, lagunok!
Benga, denok barrura!	.Ea, denok barrura!
Bueno, badakizue nor naizen, no ?	.Tira, badakizue nor naizen, ezta ?
Klaro, ez badakizue, pues esan egin beharko!	.Jakina, ez badakizue, bada (ba) esan egin beharko!
Oseake... ni ikustera etorri zarete?	.Orduan (beraz)... ni ikustera etorri zarete?
Ola, Xilberio, zer moduz hago?	.Aupa (eup, kaixo), Xilberio, zer moduz hago?
Aiba, Manolo, hi ere hor al haiz?	.Ene (dedio), Manolo, hi ere hor al haiz?
Joder, hi! Lahostia izan duk gaur goizekoa!	.Dedio, hi! markakoa (izugarria) izan duk goizekoa!
Bai, motel, Aber zer esaten duten gaueko parte an!	.Bai, motel, ea zer esaten duten gaueko albistegian!
Onbre, gauza handirik ez ditek esango!	.Tira, gauza handirik ez ditek esango!
Enfin, zer egingo zioagu...	.Tira, zer egingo zioagu...
Hi, hasi hadi ya, kojón !	.Hi, hasi hadi behingoz, dedio !
Bale, hasi egingo nauk, sinmas !	.Tira, hasi egingo nauk, besterik gabe !
Hi, mutiko, mikrofonoa ekarri! eske eztarria...	.Hi, mutiko, mikrofonoa ekarri! Izan ere , eztarria...
Joder, Benito, hasi hadi behingoz! Bestela, fuera !	.Hi, Benito, hasi hadi behingoz! Bestela, kanpora !
Bai, onbre, eske ez gaituk hona kieto egotera etorri!	.Bai, gizona , ez gaituk hona geldi egotera etorri!
Deakuerso, oraintxe hasiko nauk!	.Ederki (ondo), oraintxe hasiko nauk!
Ikusiko duk, deputamadreko anbiente a jarriko diat!	.Ikusiko duk, primerako (kristoren) giroa jarriko diat!
Jode, Benito, hirekin konturatzerako asuntoa sefini !	.Dedio, Benito, hirekin konturatzerako hitzaldiarenak egin dik !

Ez dakigu Benitok bere lana ondo beteko zuen ala ez. Konturatutako zineten, hala ere, elkarriketa hori heldu samarrak

diren euskaldunen artekoa izan litekeela. Badira oraindik “bereziagoak” direnak, gaztetxoaren artean guztiz arruntak...

✗ Euskara ‘makarronikoa’

Baia, baia ! Si hemen dago Haritz kon los kolegis ...	.Kontxo, kontxo! Hemen da eta gure Haritz lagunartean ...
Pues, klaro , zu bezala! Notejode !	.Bada (ba), noski, zu bezala! Hau larrutaria !
Eta zure neska non letxes dago?	.Eta zure neska laguna non kristo da?
Etxean geratu da ikasten, porke bihar etsamina dauka	.Etxean geratu da ikasten, bihar azterketa izango du eta !
Oseake... gaur lagunekin da martxa !	.Beraz (orduan), gaur lagunekin jo ta ke parrandan!
Eske Jonekin tabernaz taberna ibiltzea da un koñazo ...	.Izan ere Jonekin tabernaz taberna ibiltzea alukeria galanta da !
Bueno, bestela ere da un poko berezi, e!	.Tira, bestela ere berezi samarra da, e!
Onbre, kienmas kienmenos , ia neska guztiak!	.Hi, gehiago edo gutxiago , ia neska guztiak!
Tio, no te pases , denak ez! Batzuk joaten dira, en plan ...*	.Jesus, gizona , denak ez!
Bueno, eta zer moduz bestela?	.Tira, eta zer moduz bestela?
Ondo! Eta zu ere deputamadre ikusten zaitut, kabronazo !	.Ondo! Eta zu ere primeran ikusten zaitut, alu hori !
Joder, Eneko, barrako mutila ez al da Johnny “Tximas”?	.Dedio, Eneko, barrako mutila ez al da Johnny “Tximas”?
Da tipo bat superjatorra , tio! Australiano!	.Oso mutil jatorra (ezin jatorragoa) da /duk! Australiarra!
Kojón, pues berarekin hitz egitera noa!	.Kontxo, bada berarekin hitz egitera noa!
Benga, egongo gara! Adios !	.Tira, egongo gara! Aio! Hurrena arte !

* “Joan ginen en plan...”, “etorri zitzaizun en plan...”. Ja-kingo bagenu “en plan” horrek zehatz-mehatz zer adieraz-ten duen...

OHARRA: Goierritarra aldizkariaren 348. zenbakian, “Denetik XIV” izenburupeko atal edo puntutxoetako ba-tean, “Ia erori naiz” bezalakoak ez direla txukunak ge-nioen (aditza lehenaldian behar zuela, derrigorrean); ba-dirudi, halere, leku batzuetan arrunta dela, batez ere Biz-kaian!



MUTILOAKO

I. TXERRI AZOKA

2008ko azaroak 9

ANTOLATZAILEAK:



MUTILOAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



10:00etan: Azokaren irekiera ofiziala trikiti giroan.

Goizean zehar:

- Txerri erretzea.
- Txerrikiak salgai: jatorri ezberdinetako ekoizleak, kultura bakoitzeko ohituretan oinarrituak
- Txerri erakusketa.
- Odolki dastaketa.
- Urdaiazpiko mozte erakusketa eta dastaketa.
- Umeak asto gainean ibiltzeko aukera izango dute.

12:00etan: Erretako txerriaren dastaketa - pintxoak.

14:30ean: Bazkari herrikoia.

Barroko Aire



XXIII. MUSIKA BARROKOAREN EGUNAK

ORDIZIA

ELIZA NAGUSIA - 20:00

Azaroak 8: Ensemble Diatessaron
Olatz Saitua, Soprano
Luis Gonzalez, Trompeta barroca

Azaroak 15: Conjunto Barroco de San Sebastian
Zuzendaritza: Sergio Zapirain

Azaroak 22: A Capella Portuguesa
Zuzendaritza: Owen Rees

Azaroak 28: Orfeón Donostiarra
Zuzendaritza: Jose Antonio Sainz



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Ordiziako Udala



Eguneroko dietaren kaloria kopuruan eragin handiena duena, egiten den iharduera fisikoa da. Eskailerak igo edo igogailua hartu, lanera oinez edo kotxez joan, eta abar bat kontuan izan behar ditugu dieta bat egokitzeke garaian.

Kalori kopurua

Oinarrizko metabolismoa edo gorputzaren funtzionamendu orokorrerako behar den kaloria kopurua (organuek bere lana egiteko beharrezko duten energiari dagokio) adin, sexu, gorputzaren konposizioa (muskulu gehiago, kaloria gehiago), lo ordu kopurua, eta abar kontutan izanda kalkulatu daiteke. Gizonezkoen oinarrizko metabolismoa altuago izaten da, alde batetik emakumezkoak baino gihartsuagoak direlako, baita garaiera altugokoak ere.

Bestalde gorputzean bildutako gantz ehunak kalori gutxiago behar ditu bere mantentzeko eta horregatik esaten da emakume nahiz 3. adineko pertsonen kaloria behar gutxiago dituztela. Kontutan izan behar dugu, jaiotzetik zahartzarora arte, gihar ehunaren pikorik handiena gaztaroan ematen dela (neskek lehenago izaten dute) eta urteak bete ahala gutxitzen joaten dela.

Iharduera fisikoak, hortaz, gorputz konposizio aldaketa honetan eragin zuzena izango duela esan genezake.

Asteko iharduera

Eguneko gastu kalorikoa zein den kalkulatzeko, aste betean egiten den iharduera mota, denbora eta intensitatea kontutan izan behar dira. Kontutan izan behar dugu korrika egin edo txirrin-

duan ibiltzeko kaloria kontsumo oso ezberdinak ematen direla. Esate baterako, 70 Kg.-ko 35 urteko gizon batek, korrika (5 min/km-ko intensitatean) eta txirrin-duan (15-20Km/h ko abiaduran) egin ahal izateko behar dituen kaloria kopurua bikoitza da lehen kasuan. Hortaz, ordubetez korrika egiten, gure gizonak 800 Kcal gastatzen baditu, 400 Kcal besterik ez dira izango txirrindan ibili ezker.

Ondorioz, pentsa daiteke eguneroko behar energetikoak oso desberdinak izan daitezkeela baldin eta iharduera fisikoa egiten bada. Beraz egun batzuetan energi behar horietara iristea zaila suerta daiteke (maratoilarien 2-2.5 orduko entrenamendu batean adibidez), baina iharduerarik gabeko beste egun batekin konpesatuko da ziurrenik.



Naroa Arrieta
KEMEN Kirol Osasun
Zentruko Diestista

Gure helburua,
zure ongizatea.

XVHAI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

Kale Nagusia 6, Idiazabal 943 18 74 94
xuhaifisioterapia@gmail.com

Olagi

Urte guztian
zabalik

Sagardotegia
Jatetxea

Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko menua

© 943 88 77 26 ALTZAGA



euler
bombas sumergibles


Salmenta
Konponketa
Alokairua
Harilketa



T/F: 943 16 47 93 - M: 639 40 26 11

Isabel Elorzak Aizkorri aldeko artzaintzaz tesia aurkeztu du

“Beti borroka egin izan duelako, iraun du artzaintzak hainbeste urtean”



Erizaina da lanbidez baina 1999. urtean Antropologiako ikasketak egiten hasi zen Maria Isabel Elorza. Tesia egina du dagoeneko, artzaintza hartu du gaitzat. Zehazkiago, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoko artzaintza. Aurretik ‘Zegama, Urbia eta Aizkorriko artzaintza’

lan etnografikoa egin zuen Lierni ahizparekin. Bildutako materiala, interpretatu egin du orain, hainbat eta hainbat ondorio ateraz. Ondorengo orriotan dituzue artzaintzak hainbeste urtean iraun izanaren arrazoietariko batzuk. Cum Laude nota izan duen tesiaren laburpentxoak.



Kol. zkia.: 764

<i>Nerea Larrea Oyarbide</i>
Aho kirurgia Implantologia Periodontzia Artikulazio eta ahoko minak
Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



Maria Isabel Elorza zegamar-segurarra 1999ko irailean hasi zen antropologia ikasten. Alaba, urrian jaio zen. Ikasketak bukatu eta tesia ere egin du. Tartean, Zegamako Udalak emandako bekarekin, 'Zegama, Urbia eta Aizkorriko artzaintza' lan etnografikoa egin zuen Lierni Elorza ahizparekin batera. Gai horri tiraka egin du tesia ere: 'Gipuzkoako eta Arabako Partzuer-goko artzaintza. Artzaintza-ren historia eta eguna etnografiaren begirunetik'. "Seguro nago, tesia ez nuela aurrera aterako, aurrez liburua egin izan ez bagenu. Titulua nik daukat, baina titulu erdia gutxienez, Liernirena, nire ahizparena da", aitortu du Elorzak. Bi lanen arteko ezberdintasuna zein den zehaztu du: "esaten zutena oso ondo zegoen eta bilketa lan hori behar genuen. Baina guzti horrek interpretazio bat behar zuen".

Artzainen artean, mendian, ordu ugari pasatu dituzte bi ahizpek, grabagailuak hartuta.

Ondorio ugari aterako zenituen tesi honetan. Zein nabarmenduko zenuke?

Argi gelditu da, inguru honetako artzaintzak hainbeste iraun duela, bizi guztian borroka egin duelako espazio bat izateagatik, espazio hori dohainik izateagatik, bertan era duinean bizi izateagatik. Borrokaren bidez lortzen izan dituzte gauza guztiek eragin bat izan du eta horrek denak nolabait indarra eman dio gaur egungo artzaintzari, histo-

riatik bazekarrelako errei-bindikazio kutsu hori.

Mendeetako ogibidea da artzaintza. Zer nolako bilakaera izan du?

Ogibidea baino gehiago, bizibidea da artzaintza. Ogibidea da, zortzi ordu sartu eta etxera joaten dena. Artzainek ez daukate zortzi ordu eta etxera noa, beti daude menpe.

Biblia ikusiz gero, han ere badaude artzainak. Hemen ere seguraski beti egon dira ardiak baina mendira joaten direnak, kalera etortzen direnak... berriagoa izango da. Artxiboetan begiratzen badugu, honela

dio: "pueden ir al monte con cabaña familiar que ésta constará de un caballo o yegua, dos vacas y tres ovejas, y tendrán llevar una más, por cada hijo que tengan, pere siempre pagando". Hori artalde baldin bazen.. ez da posible horrela artalde bideratzea.

Burdinolak jaitsi ahala artaldeak handitzen joan ziren eta artaldeak handitzen joan ahala artzainak lan gehiago zuen. Orduan familiarekin igotzen hasi zen, han ere laguntza behar zuelako, nire ustez behintzat. XX. mendearen hasieran, 20eko hamarkadan gutxi gorabehera, artzaina hasi zen erreibindikatzeko leku duin bat familiarekin bizi ahal izateko, "con la debida separación de sexos, y por higiene". Suposatzen da, orduan hasiko zela familia osoa igotzen. Ordura arte, txabolak oso ondo deskribatuta daude. Zein neurritan-

Bietako bat, berdina da zein, artzaina ez baldin bazen, artzaintza galdu egin da edo galtzeaz dago.



koak izan behar duten... eta oso handiak ez ziren. Erreibindikatzen orduan hasiko zen, familia igotzen hasiko zela eta familia igotzen hasiko zen, eskuak behar zirelako, artaldeak handiakoak hasiko zirelako.

Urbiako eta Oltzeko artzainen arbola genealogikoa egin duzue.

Artzain txabola guztiak lotuta daude. Lau familia daukete eta hortik ateratzen dira gaur egun dauden artzainak. Arbola genealogikoa egin zen, izen bereko artzainak zeudelako. Orduan konturatu ginen zer nolako lotura familiarra dagoen.

Eta ikusi da, artzaintza mantendu dela bi gurasoak

artzainak baziren, artzaintza sentitzen zutenak baziren. Bietako bat, berdin da zein, artzain ez baldin bazen, artzaintza galdu egin da edo galtzeaz dago. Gaur egun artzainak direnak, artzain berri-berriak dira edo bi gurasoak artzainak dira. Familiaren eragina bizi-bizirik.

Herri txiki bat izan da Urbia. Tabernak, kapilla, fonda, artzaintzako eskola Arantzazun...

Historia asko daude, batzuk kontatzeko modukoak eta besteak ez. Herri txiki bateko istorioak izaten ziren. El-karguneak bazeuden. 1924an kapilla egin zen Urbian, artzainak mezatara joateko. Fonda ere bazegoen

Partzuergoaren berezitasunak

Artzainen borroken artean, espazioa aipatu duzu. Kasu honetan, Partzuergoa dago. Zein berezitasun ditu Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoak?

Berezia da artzain asko daudelako, inguruko multzo handiena bertan dago. Entitate juridiko xelebrea, edo berezia, behintzat badu. Teoriz, Segurako herriak erositako lurak dira, Erregeak emandako baimen baten ondoren, opari gisa ia-ia. 1401ean. Bere mende zeuden herri batzuk, erosten lagundu zien. Seguraren mendean zeuden herri guztiak ez ziren izan, batzuk bakarrik. Horregatik, Partzuergoan, Zegama, Zerain, Idiazabal, Segura daude. Eta Mutiloko lau baserri. Mutilo herria ez dago.

Arabarrak erreibindikatzen hasi ziren, historikoki beraiek ere lur horiek erabiltzen zituztelako. Eskatera egin zuten, beraiek ere eskubidea bazutela aldarrikatuz. Akordio batera iritsi ziren eta horregatik arabarrak sartu ziren. Gaur egun, Gipuzkoako lau herriekin batera, Donemiliaga, Hasparren eta Zalduondo daude. 1430az ari gara hizketan.

Ordutik mantendu egin da eta hainbat Partzuergo desagertu egin ziren Mendizabalen desamortizazioarekin. Baina hau mantendu da, artzainek behin eta berriz erreibindikatu egiten zutelako. Ez dirudi, hasieran Partzuergoa, artzaintzat zenik. Esaten denez, ez dago oso garbi, baina batez ere egurra ateratzeko zen, burdinolek erabiltzen zuten. Horregatik daude Legazpiko hainbat erreibindikazio, Legazpik hainbat eskubide dituelako.

Egurra burdinolek erabiltzen duten bitartean, abere handiak mantentzen dira. Behiak, zaldiak, behorrak... burdinolak desagertu ahala, abere handiak ere desagertzen joan ziren. Artzainak sartzen hasi ziren, mendia garbi mantentzeko. Ikusi zen ardiekin ere bide ona hartzen zuela mendiak. Dirudienez, XVIII. mende erditik aurrera hasi zen Urbia ardientzako lekua izaten. Lehendabiziko saroien aipamenak 1780 urte inguru horretan ikusten ditugu.

Gaur egungo erregulazioan, artzainek daukate beste guztien gainetik eskubidea. Artzainak beti erreibindikatu egin du eta erreibindikatzen jakin du.

Partzuergoan oso istorio politak daude. Beti bi mutur daude: batean Segura dago, Partzuergoaren lur komunak direnak artzainek bakarrik aprobetxatzen dutela erreibindikatuz eta hori ezin litekeela horrela izan eta ordaindu egin beharko luketela esaneza. Horren aurrean, kontra, beti Zerain azaltzen da. Esanez, 1430ean firmatu zen akordioan, larreak eta urak libre izan behar zutela eta horrela mantendu behar zirela. Idiazabal eta Zegama, gehiago Zerainekin azaltzen dira baina ez dira garbi inoren alde agertzen. Arabarrak gehiago zeuden Segurarekin. Epaitegian urte askotan egon da eta normalean Segura galtzaile eta artzainak irabazle. Segura beti trikimailuak asmatzen saiatzen zen baina artzainak beti erantzun egiten zion. Erreibindikazioa izan da denbora guztian eta horrek eman dio nire ustez artzaintzari duen balioa edo indarra.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Artzaina oso jakintsua da

Artzainak ez al du irudi txarrik, ezkorra?

Niri ustez bai. Hori ere tesiaren ondorio bat da, estereotipo hori hautsi egin behar dugu. Artzaina oso jakintsua da. Antropologian informante hitza askotan erabiltzen da, baina niretzat artzaina, formatzailea izan da, ez informatzailea. Erakusteko izugarritzko gaitasuna dauka.

Jakintsua da baita ere, pazientziarekin hartzen duelako gauza. Zerbait egin behar duenean, kontzientziaz egiten du. Uste dugu artzaina, mendian galdutako gizagaixo bat dela. Artzaina beti komunikatuta egon da, hemen behintzat. Ez dakit Amerikan, 4.000 kilometrotan inor ez bazeukan beste egoera bat izango zuen, baina hemen nola ez da komunikatuta egongo, Urbian 40 artzain baldin badaude? Komunikatuta erabat.

Gaitasuna izan du, informazioa jasotzeko, emateko. Gurasoengandik, bere esperientziatik... Kosta egiten zait estereotipo hori nondik sortu den ulertzea. Eta argi-argi daukat, puskatu egin behar dela goitik behera.

Joaten zarenean joan da, artzain batekin hizketan hasi eta beti ikasiko duzu zerbait. Berdin da zeri buruz. Mendia, eguraldia, larreen inguruan, egunkaria ni baino askoz gehiago irakurtzen du, mundua... baita ere interesatuta dago merkatuan, bere produktua salerosi egin behar duelako. Tratantea beti izan da, beraz, diru kontuak oso ondo menderatu behar ditu. Ofizio piloa ditu eta ofizio guzti horiek jakinduria besterik ez diote eman.

Hemen behintzat ez da oso ondo ulertzen estereotipo hau nondik sortu den. Bat egongo zen, herriko xelebreren bat eta hortik zabalduko zen.

Jakinduria hori nola transmititu duen gainera, zein gaitasuna daukan... Behin artzain bat, egonean zegoen, ardiak zaintzen. "Ez al zara aspertzen?" galdetu nion. "Aspertu, aizu, ni ardiak zaintzen ari naiz eh?" esan zidan. "Nire lana ardiak zaintzea baldin bada ezingo naiz beste zerbait egiten aritu". Eta kaletarrontzat, denbora pasa dagoela iruditzen zaigu.

Ardiak nola ezagutzen dituen... Beraientzat oso normala da., horrela izan behar da. Kaletarrontzat, sinistezina

da. Ardia ikusi beharrik ere ez daukate zein ardi den jakiteko. Laino artean, ardirik ikusi gabe, badakite zein ardi falta diren. Zintzarriak entzunda bakarrik, badakite zein artaldetakoak diren.

Lezio bat baino gehiago emango zizuen artzainek.

Denak izan dira lezioak. Ezjakintasun nabaritik abiatu nintzen. Antropologian beti esaten da, zure gizarte bera ez dela komeni aztertzea, estereotipoak sortuta dauzkazulako.

Beste estereotipo bat ere bada, elkar laguntze kontuarena.

Auzolana batez ere artzainen artean ikusi dugu. Auzolana artilea mozteko, buztanak moztu eta denak afaltzera joaten ziren. Lehia egongo zen, nire etxepean ere bai. Artzainen artean beste leku batean baino gehiago zegoen? Nik dudan jartzen dut. 20 pisuko etxe bat hartu eta ikusiko duzu ze komeriak dauden beti. Artzainen artean sesioak egongo direla? Bai, baina edozein lantokitara bezala. Ez da gizartearen ezberdina. Gehiago azaldu dela? Seguruenik harreman gehiago zeukatelako. Bertan uda osoa pasatzen zuten eta denbora gehiago egiten zuten elkarrekin.

Auzolana desagertzen joan da baina elkarteak sortu dira. Ardi Latxarena, Artzai Gaztarena... Erlazio sozialak, gizartearekin batera, aldatzen doaz. Lehiakortasuna? Gaur egungo gizartean lehiakorra ez bazara, ea zer pasatzen den.

Nik uste dut gizartearen ezberdina ez dela, emakumearen papera ez den bezalaxe, artzainen garapena ez den bezalaxe. Artzaintza aurreko moduan bizitzea nahi al dugu? Ez da posible hori, bestela desagertzeaz doa. Artzaintzak iraun du moldatzen jakin duelako eta eredugarria izan delako moldaketa horretan. Elkarkide horretan, familiako elkarkidea da. Oso garbi daukate familiako lotura. Auzolana beharbada gutxitzen doa: ardi moztera, koadrilak etortzen dira; Urbian mantendu egiten da uteroko bazkaria; jendeak ere ez du uda guztia pasatzen. Askoz ere errazagoa dute kalera etortzea eta ez dute hain harreman lotu horren beharrik. Gizartean bezalaxe.

kanpotik etortzen zirenen-tzak, baina artzaintentzako ere bai. Beste taberna batzuk ere bazeuden: ezagutzen zen kaferik onena Arbelarren egiten zela esaten da. Maritxu taberna oso-oso famatua zen. Elkarren arteko harreman asko zegoen.

Urbian artzain dezente zeuden, familia asko zeuden. Orduan Arantzazuko fraileek, umeak zeudela ikusita, Arantzazun eskola ireki zuten artzaintentzat. Urbian zeuden seme-alaba guztiak Arantzazura joaten ziren egunero eskolara. Oso oroimen onak dituzte. Be-

raien bazkariarekin joaten ziren. Neskak eta mutilak joaten ziren.

Uda Urbian egiten zuten eta neguan, gehienak Bizkaira joaten ziren.

Gehienez, zenbat artzain

egongo ziren?

Partzuergo guztian 60ra iritsi izan dira. Multzo handiena, Urbian izan dira. Altzaniako sarioiak banakago daude. Artaldeak txikiagoak ziren. Ardien kopuruan ez

da gorabehera handirik egon. Artzain batek gehienez zenbat ardi izan behar zituen zehazten zuen araua zegoen. Gaur egun, artzainak txabola izateko, gutxieneko kopuru bat izan behar du, bestela ez du eskubiderik. XX. mende hasieran 150koa zen gehienezko muga. Oso artalde gutxi zeuden hainbestekoak. Artzainak gutxitzen joan ziren eran, artaldeak handitzen joan ziren. Gaur egun, gutxienez 150 ardi eduki behar dira txabolako eskubidea izateko. Artzainak gora igitzeko Partzuergoko herri

Antropologian informante hitza askotan erabiltzen da, baina niretzat artzaina, formatzailea izan da, ez informatzailea. Erakusteko izugarritzko gaitasuna dauka.

batean errolatuta egon behar du. Oraingoz ez dago gehieneko mugarik. Kopurua betetzen baldin bada, igual arautuko da; Aralarren egin dute.

Gaur egungo artzainen batez besteko adina zein da?

Hiru artzain mota ikusi ditugu, horregatik dago momenturik aberasatsenean, nire ustez.

Bat, tradizionala da, orain dela 100 urtekoa bezalakoxea. Talde txikiak dira. Adineko jendea. Horrelako pare bat badaude.

Tarte bat badago, 46-60 urte tartekoa. Hemen bi talde bereiziko nituzke: etorkizuna ikusten dutenak eta ikusten ez dutenak. Etorkizuna ikusten badute, inbertsio guztietan sartuko ziren, artzaintzatik jarraitu ahal izateko. Etorkizunik ikusten ez badute, hobekuntza egin bai, baina artzaintza mixtoa mantentzen dute. Hau da, lehengo ohiturak argi-argi mantenduz, eta berrikuntza batzuk sartuta. Artegia bai, baina gaztandegia ez, gaztandegi txiki bat...

50 urtetik beherakoak, gehienak, inbertsio gehienak eginda daude. Gaztandegi oso onak, primerako artegiak.... Inbertsio handiak dira.

Gazte-gazte batzuk ere badaude, artegia egiten ari direnak. 20-25 urtekoak.

Momentu honetan denetarik dago.

Artzaintzaren etorkizuna ziurtatuta dagoela esan al daiteke?

Lehendabiziko elkarriketetan baietz ziurtatu nuen. Baina artzain batek esan zidan ez zekitela jarraituko zuten... Beraz, ez naiz auzartzen ziurtatzera. Baina nik uste dut sena hori bada goela, barrutik ateratzen zaie.

Teknologia berriak, ikui-luak... inbertsio handiak egin ditu gaur egun artzainak.

Bestela ez litzateke aurrera



“Gizartearen errainu bat besterik ez da artzaintza”

Artzaintzan emakumeak jokatu duen papera aztertu al duzue?

Artzaina esaten baldin badugu, artzainaren irudia gizonetzkoarena dela ikusten dugu. Baina artzaintza ikusiz gero, ez da bereizten zein den artzaina, gizonezkoa edo emakumezkoa. Irudi publikoa gizonezkoarena da. Baina gizartean bezala. Orain emakumezkoak ari gara publikora irteten, baina orain arte publikoa gizonezkoena zen. Nolabait artzaintza, gizartearen errainu bat besterik ez da. Gizartean pasatu dena artzaintzan pasatu da. Gizartea aurreraka doa, artzaintza aurreraka doa. Nik uste dut ez dugula gauza harrigarri bezala ikusi behar. Nik uste dut ikusi behar dugula, hain profesio zaharrean, tradizionalan, zein moldaketa eredugarria izan da. Moldaketa inongo traumarik gabe egin da, eta egiten ari da. Ez dugu antzinako artzaintza bakarrik ikusi behar; aintzinako eran ez litzateke biziko. Artzaintza eboluzionatzen joan da gizartea eboluzionatzen joan den bezalaxe.

joango.

Gaur egun gaztak hartu du indarra.

Ez du beste erremediorik. Arkumeak orain dela 25 urteko prezio beretsua dauka. Artileak ez du ezer balio. Esnearekin justu ibiliko zara, irabazi handiegirik gabe. Beraz, derrigorrez moldatu behar gaztara. Nik uste dut artzainak oso ondo egin duela, inolako traumarik gabe.

Idiazabal Jatorriko Izendapenak lan garrantzitsua egin duela uste al duzu?

Lagundu, bai. Baina behin mendian geundenean, pertsona bat etorri zen, esanez, ea benetako gazta ba ote zeukan. Pentsatzen hasi nintzen. Klean Idiazabal gazta jaten da. Eta zer pasatzen da? Parametro oso-oso zorrotzak dituela. Idiazabal Gaztak saria izateko, polita izan behar du, ez du zulorik izan behar... oso ondo dago hori dena finkatzea. Baina itxura denez, badago beste eskari bat.

Mila arrazoiengatik, artzain bat ez da Izendapenean sartu baina Idiazabal Gaztak bezala egiten du bere gazta eta ez dauka Izendapenik. Eta gazta guztiak urtebete lehenago salduta dauzka. Eta ez da Idiazabal eta ezin da lehiaketetara aurkeztu. Balio gutxiago dauka? Gutxienez, bide alternatibo bat bilatu beharko litzatekeela uste dut, beraien aukera izateko, hainbat gaztagile badaudelako Idiazabal Jatorrizko Izendapenean sartu ez direnak. Kontutan izan beharko genituzke. Izendabepenek ez izateagatik baztertzek, min pixka bat ematen dit. Lantzeko esparru bat dago.

Urban asko al dira?

Parean ibiliko dira, denetik dago. Bere esparrua badaukate baina ez daukate inolako errekonozimendurik.

Hau esaten dudanean, Idiazabal Gaztakoak hase-rretu egiten zaizkit, baina

“Nik uste dut Aralarko artzaintza aztertu beharko litzatekeela lehenbailehen”

Azterketa honetan, lanik gehienak zerk eman dizu?

Lierniren eta bion lana jarri behar dut mahai gainean. Elkarriketa luzeak egiten genituen eta transkribatu eta moldatzea lan zaila izan da. Ordu askotako lana. Informazio guztia prozesatu egin behar da. 80 elkarriketa egin genituen: artzainak, artzaintzatik bizi izan direnak, memorian artzaintza bizi-bizirik daukatenak, artzaintzatik bizi izan direnak eta ezer jakin nahi ez dutenak, teknikoak.... Ni batez ere, artxiboko lanean aritu naiz.

Zer ikasi duzu?

Zer ez dudan ikasi! Dena ikasi dut. Ia-ia ardia latxa zela ere ez nekien. Estereotiporik gabe joan naiz, orduan mentalitate irekiagoa daukazu. Seguru nago, edozein artzainek nik baino tesi potoloagoa idatziko lukeela. Ez du teoria antrologiko bat hartuko guk hartu dugun bezala, baina ez du behar. Berez irutzen zaio jakinduria hori. Artzain batekin bost minutu pasatzen badituz ere, beti daukat zer ikasteko. Orduan, zer ez dut ikasi?

Beste azterketarik egiteko ideiarik sortu al zaizue?

Nik uste dut azkar-azkar egin beharko litzatekeela, gauza bera, Aralarrekin. Ez guk, beste gauza batzutan ari gara eta. Teorian artzainak dira. Baina konturatzeko zara, Partzuergoan, artzain bakoitza, bat dela. Oso-oso artzaintza mota ez-



berdina lantzen da. Artzain bat mundu bat da eta nik uste dut artzaintzaren unibertso txiki asko daudela eta elkartrukatzea egin beharko litzatekeela. Txabola egiteko era ere ezberdina da. Antolamendua ez da berdina. Ardia ere ez da berdina...

Idiazabal Gaztaren homogeneizazioaren kezkarik ba ote daukagu? Berdintsuak ote dira denak? Irabazten dutenak berdintsuak dira eta gazta fuerte batek ez du sekula irabaziko. Gaur egungo hiriko gustura ez al gara moldatzen ari gazta?

Trabak jartzen dienaren irudipenik ba al dute artzainek?

Artzainak esaten du, lehen morroia zeukala eta orain ez duela behar. Orain sekretaria behar omen dute. Zentzu horretan lan asko daukate.

Gaur egun, Artzain Eskola ere hor dago.

Artzain Eskolan artzainen seme-alabak ere ibili dira eta esaten dute Artzain Eskolan gauza asko ikasten dela baina gurasoengandik ikasi dutena askotan han ez dutela ikasi. Produktzioa, marketinga asko ikasten de-

la... Hori ere oso onoa dago. Ardia pertsonalizatu egiten du artzainak eta pertsonalizazio hori agian ez dute hain garbi erakusten Artzain Eskolan.

Hobekuntza genetikoaz ere asko arduratu izan da artzaina.

Artzainak ardia oso-oso maitea du. Zergatik du maitea, hobekuntza genetikoe-tatik eta esne asko eman diolako? Agian bai, baina aurretik ere, artzainak bazekien hobekuntza genetiko naturala egiten. Berak badaki oso ondo, zein den ardi oso ona, ez hain ona, zein utzi behar duen aurretiko, zein den ama erraza... hobekuntza genetikoak gaur egungo tratamenduearekin primeran, baina aurretik ere lan handia eginda dago eta jarraitu egiten du.

Aralarrekin alderatuta, ardietan bada alderik:

Aizkorri aldean, ardi latxa bai, baina muturbeltza daukate.

Muturbeltza da. Oso gustura daude ardi honekin, oso ondo moldatuta dagoela diote. Latxa izena bera hor dago. Latzatik dator, ile latzetik. Noiztik dagoen? Betidanik egon dela esaten dute baina zaharregianarena joan eta lehen hemengo ardia deitzen zitzaion, eta ez latxa. Orain dela 30-40 urte hasi zen latxa esaten.

Artzain egunak, azokak eta horrelakoak, gustura hartzen al ditu artzainak?

Nik uste dut baietz. Artzainak sinistu egiten du bere ogibidean eta duintasunez erakusten du daukana. Tradizioz beteta dagoen ofizio bat, nolabait kalera atera behar da, gu gure burua zaintzeko gai garela azalduz, ez gara gizagaixoak,

eta hona hemen gure produktua.

Artzainak hor ere moldaketa erakutsi du. Artzainak bere produktua erakutsi egiten du. Arotzen festarik adibidez ez da egiten, artzaina bai. Erakutsi egiten du daukana, gaitasun hori dauka. Kanpotik laguntza etortzen zaio batzutan, halako dirulaguntza bat dela. Baina hala eta guztiz ere, artzainak badaki bere produktua erakusten. Seguruenik historiak erakutsi dio. Azokak antolatzen dira eta gazta saltzen du, bere ardiak erakusten ditu, lana egiteko modua erakusten du, tradizioa zer zen erakusten du.... Baina era berean, artegiak irekitzen ditu eta Artzaintour dauka antolatuta. Artegi batera joan gazta egiten ikasi, ardia nola menderatzen den ikas dezakezu.



Negu honetan, ahaztu hotza.

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:

3.300€

(BEZ kanpo).



KREDIGAS

finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.



570€

ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**

ESKANTZA
PAREGABEA

Azaroaren 9an, Mutiloan

Txerrigorriek antolatutako

I. Txerri azoka

Azaroaren 9an, goizeko 10etatik aurrera, txerria izango da protagonista txerrigorrien herrian, Mutiloan alegia. Herriari bizitasuna eman eta Mutiloa ezagutzera ematea helburu hartuta, I. Txerri azoka prestatu dute. Iñaki Ugalde Mutiloako alkateak adierazi digunez, “azkeneko urteetan ibili izan gara azokaren bat antolatzekotan. Baina utzi eta utzi, azkenean, aurrean bai, aurrean egitea erabaki dugu Agenda 21eko bileretan. Beste leku batzutan azokak egiten zirela eta guk ere zerbait egitea pentsatu zen”. Berezia izango da gainera, inguruan txerriarekin zuzenean lotutako azokarik ez baita egiten.

Azokaren gaiaren inguruan ez da eztabaida handirik egon. Garbi zeukaten mutiloarrek, txerria izango zela beraien azokaren protagonista. “Mutiloarrak txerrigorriak gara ezizenez. Beraz, txerriaren gaia hartu genuen, esparru nahiko zabala hartu baidateke”, zehaztu du Ugaldek.

Eta data ere jakina, San Martin ingurua. “Garbi geneukan azaroan izan behar zuela, San Martin bueltan. Inguruko beste herri batzutan azokak badira eta kontutan hartu dugu eguna jarzera”, gaineratu du.

Mutiloarrak gustura dauke ekimenarekin eta horren adibidea da, bileretan 25-30



Herritarren azoka

Ilusioa piztu du mutiloarren artean txerri azokak. Antolaketako bileretan herritar ugari parte hartu du. Horrelako ekintzak onak izan daitezke herrira etorri berriak gerturatu eta integratzeko. Izan ere, biztanle kopuruaren aldetik aldaketa handia izan da Mutiloan. Iñaki Ugalde alkateak emandako datuen arabera, gaur egun 234 biztanle ditu Mutiloak. “Orain dela 5 urte, 168 zituen”, zehaztu du.

Itxuraz ere asko aldatu da Mutiloa. “Itxuraz jakina, asko, etxe asko egin dira. Izaeraz? Jende ezberdina etorrita ziurrenik bai, baina beti mantentzen da herri txikiaren izaera, eta hori mantentzen saiatu beharko gara. Eta nik uste dut bertako jendeak hori nahi duela, gaineratu du Iñaki Ugalek.

lagun elkartzen direla. Lehenengo urtea desne, azoka antolatzeke neska baten laguntza izan dute.

Txerria izango da protagonista beraz, plazaren eta pilotalekuaren bueltan. Batetik, arraza ezberdinak txerriak eta txerrikumeak salgai eta ikusgai izango di-

ra. “Arraza ezberdinak lortzea izango litzateke aurrera begirako asmoa”.

Eta bestetik, txerrikia salgai izango dira postuetan. Urdaiazpiko iberikoa moztan erakusten ere arituko da aditu bat.

San Martinetan, txerria hiltzeko garaia izan da ohi-

turaz. Mutiloan ez da horrelarik izango, ez zuzenean behintzat, arazorik sor ez dadin. “Mutiloko baserri batean grabatutako txerri hiltzeari buruzko bideoa ba-daukagu eta ikusgai egongo da Kultur etxean”, azpimarratu du Iñaki Ugalek.

Txerriez eta txerrikiez



kutxa

gain, beste hainbat produktu ere izango dira erosteko eta dastatzeko. Herriko eta inguruko herrietako base-ritarren postuak izango dira. Zeraindarrak ere izango dira.

Beste animalia batzuk ere egongo dira. Basurdeak, hegaztiak, gurdari tirakastoa ibiliko da haurrak garraituz... Ondoko koadroan duzue egitarau zehatza.

Herri bazkaria

Goizeko 10:00etatik 14:00etara izango da azoka. Jarraian, 14:30ean, herri bazkaria izango da. Menua, egunerako egokia: babarrunak, txorixoarekin, odolkiarekin, saiheskiarekin eta azarekin; postrea eta kafea. Ostatuan prestatuko dute. Txartelak aurrez jarriko dira salgai, Ostatuan bertan.

Hori bai, festaz gozatu ahal izateko, lana ere egin behar izaten da eta larunbatean, goizeko 9etan, muntaketa lanak egiteko hitzordua jarria dute mutiloarren.

Azkenik, Txerri azokaren antolatzaileak aipatuko ditugu: Mutiloako udalaz gain, Gipuzkoako Foru Aldndia, Goimen eta Cespa dira.



*Goierriko herrien
ezizenei dagokienean,
txerrigorriak dira
mutiloarrak.*

*“Zergatik ote garen
txerrigorriak?”*

*Ideiarik ere ez. Askotan
galdetu izan dugu baina
ez dakit zergatik den”,
zebaztu du
Iñaki Ugalde
Mutiloako alkateak.*

Egitaraua

10:00etan: Azokaren irekiera ofiziala trikiti giroan.

Goizean zehar:

- Txerri erretzea.
- Txerrikiak salgai: jatorri ezberdinetako ekoizleak, kultura bakoitzeko ohituretan oinarrituak.
- Txerri erakusketa.
- Odolki dastaketa.
- Urdaiazpiko mozte erakusketa eta dastaketa.
- Umeak asto gainean ibiltzeko aukera izango dute.

12:00etan: Erretako txerriaren dastaketa - pintxoak.

14:30ean: Bazkari herrikoa.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak



biok
zerbitzuak

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala



IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.



AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486



Lucian Mihai errumaniarra

Zaldibian bizi da 2005etik, emaztearekin eta bi alabekin

Lucian Mihai.
Errumaniarra. 45
urte ditu. 2005eko
otsailetik Zaldibian bizi
da, emaztearekin eta 21
eta 15 urteko bi
alabekin.

Kanadara joateko asmoa bazuen ere, azkenean, Goierriara, Zaldibiara etorri zen Lucian Mihai, 2005eko otsailean. Helburua bakarra zuen: alabei etorkizun hobe eskaintzea. Erabakiaren

zergatiak azaldu dizkigu jarraian: “matrizeritzan lan egiten nuen, arma lantoki batean. Nire herrian, Ceausescu bizi zenean, hemen Franco bezala, arma lantoki asko zegoen. Ceausescu oso gogorra izan zen guretzat. Iraultzaren ondoren, Ceausescurekin bukatu ondoren, arma enpresak asko gutxitu ziren. Beste lantoki batean lan egiten saiatu nintzen baina ez nuen askorik irabazten. Zigilu enpresa

Errumaniar asko Goierriin

Herrialde ezberdinetako gero eta jende gehiago bizi da Goierriin. Horieta asko eta asko, errumaniarrak dira. Gazteak dira gehienak, haur txikiekin etorriak, Lucian Mihai baino gazteagoak, 41 urterekin etorri baitzen. “Gaur egungo gazteek ez dute lanik egin nahi, ez dute ikasi nahi. Ni lanean zaildutakoa naiz, lanean badakit baina gazte asko etorri da lanean jakin gabe. Euskal Herrian, enpresariak, lanean dakiten langileak nahi dituzte. Hiru hilabeterako kontratuarekin etorri nintzen, proba bezala. Errumaniako gazte bat hona etorri eta zertan hasiko da lanean? Eraikuntzan. Lanean dakien jendea 40-45 urtekoa da. Hori bai, zenbat eta gazteago etorri errazago ikasten dute bertako hizkuntza”.

Errumaniara urtero joaten da oporretan eta Goierriko hainbat errumaniarrekin ere badu harremana, larunbatetan laguntaldean elkartzen baitira.

Lucian Mihaik, Goierriin Errumania iparraldeko jende asko dagoela esan digu, Ukrainarekin muga egiten dutena. “Zergatik? Paisaia antzekoa delako”, azaldu du.

Alabei etorkizun hobe eskaintzeko
asmoz etorri da Lucian Mihai
errumaniarra Goierriara.

Bucarest hiriburutik 60 kilometrora bizi izan da Lucian Mihai. “Donostiaren pareko herria da. 115.000 biztanle inguru ditu”.

Errumaniar, 1981ean hasi zen lanean. Lanean ari zen bitartean bukatu zuen batxilergoa. “Errumaniar Batxilergoa, hemengo goi mailako modulo baten parekoa da. 21 urterekin ezkondu nintzen. Gaur egun, zuek bezala ezkonduko nintzatekeen, 40 urterekin. Oraingo gazteak azkaragoak dira”.



“Zaldibian ogi bat euskaraz ez baduzu eskatzen... Baina bertako jende asko daki euskaraz ez dakiena”, azpimarratu du.

Lanean lan, jaietan jai

Euskal Herriaz zein irudi zuen eta zer aurkitu duen galdetu diogu Lucian Mihairi. “Zuek hemen lan gehiago egin behar duzue. Errumaniar, Euskal Herriaz irudi txarra dago. Tontakeriak dira. Ni Errumaniara itzuli nintzenean, nire herriko kazetari batek elkarrizketa egin zidan eta nik hala esan nion: lana egin behar denean lana egiten da eta festa dagoenean festa. Errumaniar gauzak zertxobait aldatzen ari dira. Kanpoko enpresak joan dira eta lan gehiago dago”, aitortu du errumaniarrak.

Zaldibiartuta

Erabat zaldibiartuta dago Lucian Mihai. Gustura bizi da eta zaldibiarren artean gustura sentitzen da. Hamar urte barru, bere burua nola ikusten duen galdetu diogu. “Nik uste dut hemen geldituko naizela jubilatuta arte behintzat. Etxebizitza erosi egin nahi dut. Etorri baino lehenago pentsatzen nuen, itzuli egingo nintzela pare bat urte barru, diru pixka bat egin eta beste enpresa bat irekiko nuela. Baina orain ez dut uste itzuliko naizenik”.

bat ere jarri zuen. 11 langile nituen. Agintariak aldatzen joaten ziren baina herritarrontzat ezer onik ez. Beraiantzat bakarrik begiratzten dute. Herriaren etorkizunerako ez dute ezer begiratzten. Dirua banuen, etxebizitza banuen baina nire alabentzat ez nuen etorkizun handirik ikusten. Errumaniar lan egiten nuenean soldata ona neukan baina nire alaben etorkizunarentzako ez zen nahikoa”.

Era horretan, internetaren bidez Zaldibiako enpresa batean kontratua egitea lortu zuen. Hiru hilabeterako etorri zen, proba gisa. Emaztea eta bi alabak, hu-

rrengo urteko irailean etorri ziren, paperak zuzendutakoan. “Enpresak berak aurkitu zidan pisua, alokairuan, baina bakarrik etorri nintzen lehenengo, hau zer ikusteko. Ezin zara familia osoarekin etorri zer dagoen jakin gabe”, azpimarratu du errumaniarrak.

Lucian Mihai, hasierahasieratik gustura izan da gure artean. Fresadoran lan egiten du. CAF enpresarentzako lana egiten dute enpresan eta 10 bat urterako lana badutela uste du errumaniarrak.

Era horretan, familiaren bila joan zen 2006ko udan. Baina “alabei hasieran ez zi-

tzairen gehiegi gustatu. Niri gehiago gustatzen zait. Nik esan nien alabei. Joan eta ikusi. Urtebetera oportetara joango gara eta orduan erabakiko duzue zer egin. Eta itzuli egin ziren”, aitortu du zaldibitar berriak.

Dena den, ondo moldatu dira. Mutil laguna ere badute. Errumaniarrak dira. “Gaztelarazko eskolak hartu zituzten lehenengo. Alaba gazteenak, euskaraz badaki. Alaba zaharrena Donostiara joaten da ikastera”, adierazi du Lucianek.

Gaztelaraz hitzik ez zeikiela etorri zen Lucian Mihai. Gaztelera ikasi du eta euskaraz saiatzen ari da.



- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitarkekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04



zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA



*Abarlotz Olano,
Zaldibiako kantaria*

Barne sentimenduei doinua jarritz

Ute asko
daramatza
Abarlotz Olanok
kantuan. Lehenengo
besteenak abesten, baina
orain, bere
sentimenduei hitza eta
musika jarritz, gitarra eta
ahoko soinuarekin. Bere
ametsetariko bat,
kantuak sortzea alegia,
betea du.

Orain dela 5 bat urte Ataunen aurkeztu zen lehenengoz Gipuzkoako kantu txapelketan. Benito Lertxundiren 'Erribera' kantua abestu zuen. Ordurako dena den, bere abestiak sortzen hasia zegoen. Eta horretxek pozten du Abarlotz Olano, bere kantuak sortzeak. Euria goian behean, trumoi ere bai noizbehinka, Abarlotzen garajea, entseiu lekuan, egon gara berriketan, tar-teka iluntasunean, argia joan-eto-rrian ibili baita.

Euskal musika tradizionalen kokatzen du bere burua. Letrak eta musika, bere-bereak ditu. Guztiak berak sortuak. Abarlotz Olanoren barne sentimenduen isla. Gai ezberdinak jorratzen ditu. Eguneroko gaiak, naturako elementuak oinarri hartuta. "Eguneroko borroka, gatazkak, hil zen Hodei Galarragari egindakoa... Ez zait gustatzen ni izatea esaten duena, hark esandakoa nik zuei abestuz esango dizuet. Erosoago sentitzen naiz horrela. Bakoitzak bere era dauka. Lanean ari nintzen lekuan, halakoxe txori bat pasatu zitzaidan ondoran, kantuan, eta hortik etorri zitzaidan inspirazioa".

Bi gitarra eta ahoko soinuarekin laguntzen du Abarlotzek ahotsa. Dagoeneko 30 bat abesti sortuak ditu. Guztiak paperean eta buruan ditu bilduak. "Make-tatxo bat atera nuen, familiakoei emateko". Diskoari buruz galde-tuta, momentuz behintzat, ez du aukerarik ikusten. "Sentitzen du-zuna adierazteko aukerak poza ematen du. Disko txarra ateratzea oso erraza da baina soinu




GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLETAN
PLOTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK

© 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN



Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnakia 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

O
I

ona duen disko bat egitea, gauzak ondo egitea... ez da berriketa. Lan handia da. Egunen batean zeinek daki!”.

Kantari ibilbidearen fase berri batean sartua dagoela uste du Abarlotzek. “Besteenak abestea ez zait gustatzen. Fase berri bat izango da igual. Hasieran besteen abestiak hasten zara. Benito, Erribera... oso esanguratsua da. Asko entzun dut etxean ere... baina musikan zure izaera bat behar duzula sentitzen duzu. Denori gustatuko litzaigukeena da. Zure nortasuna edukitzea da gakoa. Zuk jorratu duzun lan bat da. Zuk sinisten duzun lan batera joan zara, sinisten duzun sentimenduetara eta hortik atera da hau dena. Ez da bi egunetan ateratzen”.

Izaeraeran garapen horretan, nolako kantaria den galdetu diogu zaldibiarriari. “Nolako kantaria naizen? Hori zuek esan beharko duzue. Nik ikaragarri sentitzen dut, abestea, sormena landuz sortzen dena da asko. Irakurri, beste musikak entzun... lana egitea da, jorratzea... Nik abeslari asko ikusten ditut, aditu beharra daukat asko besteena, besteak ikusiz asko ikasten baita”.

Benito Lertxundi, Bob Dylan... horiek ditu erreferentzi. “Niri Benito ikaragarri gustatzen zait. Gauza sakratu bat bezala da niretzat. Ez zait konparaketak egitea gustatzen. Ojala Bob Dylan bat izatea! Norbera den bezalakoa da eta alperrik da, nahiz bati edo besteari begiratu. Asko ikasten duzu besteengandik baina azken finean zeu zara. Publikoak agintzen du azkenean. Nahiago dut besteek esatea. Ni naiz eta kittol”, aitortu du zaldibiarrak.

Ildo honetan, bere amets bat bete du dagoeneko Abarlotzek. “Nire amets bat, kunplitu dut. Hain asekaitez egarria neu-



Victor Lezama, Ordizian bizi den nikaraguarrarekin batera abestuko du Abarlotz Olanok Donostian. “Victorren laguntasuna ikaragarria da. Pozik handiena borixe da, lagun bonekin konpartitzea”, dio Abarlotzek.

Kantu txapelketako finalean

Datorren igandean, azaroaren 9an, arratsaldeko 5etan Donostiako Antzoki Zaharrean, Gipuzkoako kantu txapelketaren finala jokatu da. Bertan izango da Abarlotz Olano, Victor Lezamarekin batera. ‘Txori txiki bat naiz’ kantua abestuko dute, bi gitarra eta harmonikarekin lagunduta. Kanporaketan ‘Neure buruari’ kantua ere abestu zuten baina epai-mahaiaren arabera puntuazio handiagoa lortu baitzuen ‘Txori txiki bat naiz’ kantuak.

Victorri izugarritzko ilusioa egin dio Kantu txapelketan parte hartzeak eta ziur dago, irabazi egingo dutela. Zorte on bikoteari!

kan nire kantuak sortzekoa, uste nuen ez nintzela gai izango eta ikusten dudanean nire kantuak sortzen ditudala, nire amets bat, helburu bat, bete da. Gero amets gehiago daude. Txikitxikitatit gustatu izan zait abestea. Berez ateratzen den gauza bat da. Jende askok esaten dit utzi beharko dudala, baina barrutik ateratzen zait eta nola utzi behar dut! Ezin da, ateratzen den gauza bat da, behar duzuna”, azpimarratu du Abarlotzek.

Ametsaz galdetuta, bere kantu baten letrak ekarri dizkigu gogora.

*“Ikustean, sentitzean,
etenik gabeko bidean
indarkeriak mugaz muga
etenik gabe kolpeka
denok iritsi nahi
eta ezin denok buka
ipar orratza aurrean
gizon belduak atzean
orein bat bezala noa
mendiaren bibotzean
Ez dut mugarik
Ez ere besirik
Ez da ni geldituko
nauen zakurrik*

*Munduko txoko
Txiki batean sortua
Ingurua da txorien
kantuz abestua
Baina ez dut bain
Abeslari sentitzen
Neure sorlekua
Nortasun hau nahi lukete
Hila ala lokartua
Minak, penak, etsipenak
Begi tarte busti dit
Sentimendu bati inork
Ezin dio jarri besirik
Ispirituak ez du nortasun
agirik
Airean aske behar du
Iraungo baitu bizirik.*



“Ametsetako kontzertua: Dylan, Springsteen, Xapre eta Abarlotz, Zaldibiako plazan”

Musikari bezala, zure ametsetako kontzertua?

Adibidez, Zaldibiako plazan. Bob Dylan, Bruce Springsteen, Xapre eta Abarlotz. Horixe nire ilusioa.

Euskal musikarietan nor aukeratuko zenuke?

Egia esango dizut, euskal musikari oso onak daude eta elkartzurik ez dutela kontzerturik egiten, pena handia hartzen dut. Ez dakit nola ez duten elkar hartzen. Elkarren artean egin daitezkeen gauzekin, sormen lan bat ez egitea... Egin beharko lukete. Horren falta handi bat dago. Atzetik datozen gazteei ere aukera eman. Elkarrekin egin da, proiektu asko sortzen diren. Oso interesgarria litzateke. Niretzat disko bat egitea baino interesgarriagoa da. Elkartu eta proiektuak egin.

Euskal kanturik onena saioa egin zen Euskal Telebistan. Zuretzat zein da euskal kanturik onena?

Niretzat hori sortu zuena kartzelan egon beharko litzateke. Hori iruditzen zait dela, egin daitezkeen burlarik handiena. Oraindik harrituta nago. Zein da abeslaririk onena? Zein da euskal kanturik onena? Hori nola leike sortu! Ez al dago beste formularik euskal kantugintza laguntzeko? Euskal kantuei burla egitea dela iruditzen zait. Hainbeste urtean lanean aritu direnak! Oso gauza itsusia iruditzen zait.

Dutxan abesten al duzu?

Ez, sekula ez zait gustatu dutxan kantatzea. Garajea, kantatzen dut. Kotxean ere bai tarteka. Lanerakoan baina gehiago, etxerako bueltan. Lanean bertan makina bat al-diz aritu naiz...

‘Neure buruari’

“Bakardadean denbora asko pasatzen dut eta asko gustatzen zait, bakardadean egoteak asko erakusten dizulako. Askotan ez da mila pertsonarekin egon behar asko ikas-teko. Ez dut esaten ona denik, baina ni ikaragarri gustura egoten naiz bakarrik. Nire izenetik abiatu naiz kantu honetarako. Nire izena udazkenean hostoak erortzen direneko abarrotsetik dator. Hostoak eta adar txikiak abarrotsetik dator. Baina nire burua ere ez baita hor aurrean daudenik gabe inor.” Hortxe duzue ‘Neuri buruari’:

Neure buruari utzia diot joaten
Edo nire arima doa gorputzetik urrun
Eskuetan ez dut indarririk
Ia-ia zutik,
zuen maitasuna arnastuz
hemen bakarrik.
Zuhaitzetako hostoak bezala
Hiltzerakoan sortzen naizen adarrak
Erortzen naizen aurreneko aldiz
Gogoratuko zara nitaz
Bigarrenorik ez da izango baina
Hor izango naiz zuen aintzinean
Biraka abestuz
Galdutako abarrak
Iraunkorrak.
Belarrietan dantzari
Lor gosearen janari
Antzera ezinezko doinu hori
Urtaro udazken oparia
Ez dut alperrik utzi
Bere eskuzabalen artean
Gorde dut nire arimaren bizia
Atsedean pixka bat har dezan
Nire gorputz argal finak
Sedazko landareen artean.
Ezpain bustiak musukatu dira
Elkarren artean
Ihartzen zegoena hezetuz
Arima berberak elkartu gara.

Etiketetik datorkio musika zaletasuna Abarlotzi. Xapre trikitilaria, osaba baitu. “Xaprek asko erakutsi dit. Txiki-txikitatik Iparraldera asko eraman nau. Abeslari askorekin konpartitzeko momentua izan dut. Hori gauza ikaragarria da. Nahiz eta nire estiloa ez den, oso diferentea da, baina hartue-man handia daukagu eta oso positiboa da. Niretzat osaba, oso pertsonaje aparta da eta gauza asko ikasten dituzu berarekin”, adierazi du zaldibiarrek.

Tarteka, osabarekin ere

aritzen da panderoa jotzen. “Berari estilo bat gustatzen zaio eta niri beste bat. Horrekin ez dut esan nahi ez dudarik baloratzen. Osabarekin panderoa jotzen askotan aritu naiz. Oso oroimen politak dauzkat bihotzean. Adibidez, letrak egiteko garaian Sebastian Lizaso, Euzkitzerekin harremanetan jarri nau osabak eta nondik nora jo gomendatu didate. Ikaragarria da osabak hartu eta horrelako jendearengana eramatea. Ez dut inoiz ahaztuko”, gaineratu du Abarlotzek.

Beasain

Udazken kulturalaren azken txanpa

Azaroak 7, ostirala:

18:30ean: Erraldoi eta kilikien irteera txistulariek lagunduta.

20:15ean: Naia taldearen dantza ikuskizun benefikoa, Txolarteren alde. Usurbe Antzokian. Sarrera: 6 euro.

Azaroak 8, larunbata:

10:00etan: Bertako produktuen azoka berezia eta ardo azoka, Loinazko San Martin plazan.

12:00etan: Odolki dastatzea eta lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.

15:00etan: Bazkari herrikoa Loinazko San Martin plazan. Txartelak aldeztatik salgai.

18:30ean: Koskola txar-rangaren irteera kaleak girotuz.



Azaroak 9, igandea:

10:00etan: Igande goizeko irtenaldiak, Asmubetik.

12:00etan: Elgoibarko Udalaren Musika Bandaren kaleria.

13:00etan: Elgoibarko Udalaren Musika Bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan.

17:00etan: Haurrentzat txapa eta iman tailerra, Loinazko San Martin plazan.

19:00etan: Beasaingo XVII. Argazki rallyko sari bana-keta eta aurkeztutako lanen ikustaldia, Udal Batzar aretoan.

21:00etan: Aire zabaleko pintura lehiaketan aurkeztutako lanen erakusketaren amaiera, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

21:00etan: Zine kluba: 'La escafandra y la mariposa'. Usurbe Antzokian. Sarrera: 3,5 euro.

Beasain

Mendi astea

Arrastaka Mendi elkarteak antolatuta, mendi astea ospatzen ari dira Beasainen. Jarraian duzue egitaraua:

Azaroak 6, osteguna:

19:30ean, Udaletxeko batzar aretoan, Pedro Garciaren Broak Peak (8.047 m.) buruzko diapositiba emanaldia.

Azaroak 7, ostirala:

19:30ean, Udaletxeko batzar aretoan, Ander Goitiaren 'Cordillera Blanca' ikusentzunezkoa.

Azaroak 8, larunbata:

10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era, Antzizar kiroldegiko rokodromoan, eskalada praktikatzeko hasi nahi duten guztiek lehenengo urratsak ematen hasteko aukera izango dute.

Beasain

Astigarretako jaiak

San Martin jaiak ospatuko dituzte azaroaren 16an Astigarretan. Auzotarrek prestatu duten egitaraua duzue jarraian.

Azaroak 16, igandea:

12:00etan: Meza Nagusia, Beasaingo San Martin parrokiako abesbatzak abestuta.

13:15ean: Aizkolariak: Azurmendi eta Olasagasti. Bertsolariak: Xabier Zeberio, Ekaitz Goikoetxea eta Mañu-korta.

13:00etan: Elgoibarko Udalaren Musika Bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan.

14:00etan: Herri bazkaria. Bazkaria eta ondorengo orduak bertsolariak eta trikitariak girotuak izango dira.

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120 (arratsaldez)
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA:

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

INFORMATIKA:

Mekanografia, Word, Acces, Excel

IKASKETA TEKNIKAK


INGELERA:

Maila guztiak, PET, First Certificate, mintza praktika


Eskaintza berria: **FRANTSESA**



SILVIAMIRASCASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Ormaiztegi

Mendi astea

Ormaiztegiko Kirol Elkarteko mendi sailak eta udalak mendi astea antolatuta dute azaroaren 10etik 16ra. Aste-lehenetik ostiralerako ikusentzunezkoak kultur etxean izango dira 19:30ean

Azaroak 10, astelehena:

Angel Jose Martinez eta Iñaki Alavaren 'Cañones y barrancos de Euskal Herri' ikusentzunezkoa.

Azaroak 11, asteartea:

Unai Barrenetxea eta Ander Goitiaren 'Peru cordillera blanca' ikusentzunezkoa.

Azaroak 12, asteazkena:

Ander Lekue eta Lierni Unzuruzagaren 'Travesia Chamoni-Zermat' ikusentzunezkoa. **Ondoren:** Aitor Zabaleteri Barduliarrak elkartean egin zitzaion omenaldian grabatutako, 8 minutuko, pelikula ikusgai izango da. Egilea: Inazio Garmendia.

Azaroak 13, osteguna:

Joxe Ramon Agirrerren 'Airean' ikusentzunezkoa.

Azaroak 14, ostirala:

Alberto Zerainen 'K-2' ikusentzunezkoa. **Ondoren:** VII. argazki lehiaketako sari banaketa.

Azaroak 16, igandea:

9:00etan: Ormaiztegi-Ormaiztegi mendi ibilaldia (2,30 - 3 orduko iraupena). Partaideentzat hamaiketako izango da.

18:30ean: Gaztaina jatea plazan.

Ordizia

XXIII. Barroko aire kontzertuak

Azaroaren 8tik 28ra, Barroko aire kontzertuak izango dira Ordiziako Eliza Nagusian, iluntzeko 8etan. Jarraian duzue egitaraua:

Azaroak 8, larunbata:

Ensemble Diatessaron. Olatz Saitua sopranoa eta Guy Ferber, tronpeta barrokoa.

Azaroak 15, larunbata:

Donostiako talde barrokoa.

Azaroak 22, larunbata:

A Capella Portuguesa, Urdanetaren omenez.

Azaroak 28, larunbata:

Donostiako Orfeoia.

Gabiria

Errezil sagarraren IX. lehiaketa eta azoka

Azaroaren 16an, Errezil Sagarraren IX. lehiaketa, menbrilu lehiaketa eta baserriko produktuen azoka izango dira, 10:00etatik 14:00etara.

Goizean, baserriko produktuen azoka, lehiaketara aurkeztutako Errezil Sagarren eta Menbrilu edo Sagar-goxoen erakusketa.

Eguerdiko 1,30ak aldera, Anttoni Murgiondo, Beko Etxe Baserrikoa, herritarrari omenaldia egingo zaio. Jarraian, sagar saskikada baten zozketa egingo da, sari banaketekin batera. Tripazorriak ixiltzeko, menbrilu das-taketa egingo da, baserriko ogiarekin lagunduta, dohai-nik.

Legorreta

X. Gazte festak

Gaztepikek antolatuta Gazte festak izango dira azaroa-ren 7an eta 8an.

Azaroak 7, ostirala:

17:30ean: Ume jokoak.

20:00etan: Pintxo lehiaketa.

20:30ean: Afaria.

22:00etan: Kontzertua: Lobo Electrico, Surfin Kaos eta Willis Drummond.

Azaroak 8, larunbata:

14:30ean: Bazkari Aldapa Haundin.

17:30ean: Erreka jaitsiera.

22:00etan: Gau irlandarra.

24:00etan: Karaokea.

Gaintza

San Martin jaiak

Azaroak 8, larunbata:

18:00etan: 'Adin bakoitzean nola eta zer jan' hitzaldia emango du Julian Bereziartua medikuak, On-bide el-kartean.

18:00etan: Haurrentzako ipuin kontalaria, 'Halabazan-go ipuinak', haurreskolan.

20:30ean: Afari merienda eta gaztaina jana, On-bide el-kartean. Ondoren trikitixa.

Beasain

Beldurrezko eta fantasiako filmen maratokia

Donostian izaten den Beldurrezko eta Fantasiako Zinema asteak Beasainen ere izango du gureak, azaroaren 15ean. Izan ere, aurten lehenengo aldiz, Gipuzkoako hiru herritara zabaldu baitute beldurra eta fantasia: Beasaina, Arrasatera eta Tolosara. Beasainen, azaroaren 15ean izango da, arratsaldeko 5,30etan hasita.

Hiru maratoki hauek Begoña del Tesok aukeztuko ditu laburmetraien egileekin batera. Programa hiru zatitan banatu dute antolatzaileek:

1. Euskadin egindako fantasiako eta beldurrezko 8 film laburren proiektzioa: **Por un infante difunto** (Tinieblas González, 1998). 9 min. **Txotx** (Asier Altuna eta Telmo Esnal, 1997). **...Ya no puede caminar** (Luiso Berdejo, 2001). **Belarra** (Koldo Almandoz, 2002). **Tercero B** (Jose Maria Goenaga, 2002). 18 min. **7:35 de la mañana** (Nacho Vigalondo, 2003). **El tren de la bruja** (Koldo Serra, 2003). **Máquina** (Gabe Ibañez, 2006).

2. **Millennium Actress** (Satoshi Kon, 2001) filmaren proiektzioa euskarazko azpitituluekin.

3. **Déjame entrar** (Tomas Alfredson, 2008), filmaren proiektzioa gaztelerazko azpitituluekin.

Lazkao

Kantu-jira

Goierriko Euskal Eskola kultur elkarteak kantu-jira antolatu du azaroaren 8rako, larunbata. Eguerdiko 12:00etatik 14:00etara Donostiako 'kaskariñak' eta Lazkao 'antzarrak' herriko kaleetan kantari ibiliko dira. Ondoren, 14:30ean, bazkaria egingo dute Maizpiden. Menua: babarrunak, aza eta odolkiarekin, haragi egosia tomatearekin eta fruta.

Ordizia

IV. Arte plastikoen Goiart 2008-Ordizia saria

Arte plastikoak sustatu eta zabaltzeko helburuz, Ordiziako Udaleko Kultura sailak IV arte plastikoen Goiart 2008-Ordizia Saria antolatu du. Euskal Herrian jaiotako edo bizi diren artistek parte har dezakete.

Hiru sari emango dira: lehen saria: 3.000 euro; bigarena: 1.500 euro; hirugarrena: 900 euro. Goierriko artista baten lanari saria: 600 euro. Goierriin jaio edo bizi den artista baten lana sari dezake epaimahaiak.

Abenduaren 15ean bukatzen da lanak aurkezteko epea. Ordiziako Barrena Kultur Etxera bidali behar dira lanak. Edozein informaziorako: 943 80 56 30.

Mutiloa

Kultur astea

Azaroak 11, asteartea:

'Energia berriztagarriak'. hitzaldia, 19:30ean, Udaletxeko ganbara berrian.

Azaroak 12, asteazkena:

Iban Mate sukaldariaren hitzaldia, 19:30ean, Udaletxeko ganbara berrian.

Azaroak 13, osteguna:

Iban Mate sukaldariaren hitzaldia ardoari buruz, 19:30ean, Udaletxeko ganbara berrian.

Azaroak 14, ostirala:

Isabel Millet ipuin kontalaria, 17:00etan, Udaletxeko ganbara berrian.

Azaroak 15, larunbata:

10:00etan: Plazatik irtenda, garai bateko Meategietako Tren Ibilbidea ezagutzeko txangoa egingo da.

21:00etan: Herri afaria Ostaturun.

Goierritarra
943 16 00 56
goierritarra@goierrikohitza.info

GOIERRIKO hitza
943 16 00 56
goierri@goierrikohitza.info

**izal**
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA
943 187 049
943 187 045
Ondramuño
baserria
IDIAZABAL

Arkupe
ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK
J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA
Mota guztietako
gida-baimenak
Aita Urdaneta
ORDIZIA
943 88 72 76



Gabiriako Izarhaundi baserriko sendia 1926. urtean

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Eugenio, Ana, Joxe Agustin, Maria eta Pedro Murua Izagirre anai-arrebak.

Beheko ilaran: Gabino Murua Izagirre, Paulina Izagirre Zunzunegi, Juan Murua Garin, Ana Frantziska Lasa Arre-
gi, Juan Migel Murua Lasa eta Dominika Garin Agirreurreta.



RENAULT

LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxe: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO



KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70
BEASAIN



A SE PLAN S.L.

A HOLKULARITZA · ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



ANDRAITZ

Fisioterapia Zentroa

Errehabilitazioa
Masaje terapeutikoa
Kirol masajeak
Lunbalgiak eta ziatalgiak
Drenaje linfatikoa
Kinesiologia

Naiara Gómez Larrea
Kol.zkia.: 1466

Ordutegia:
astelehentik
ostiralera
9:00 - 13:00
15:00 - 20:00

Andraitz kalea, 2 ezk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32

Goieritik 20 minutura...

Sukaldeak

Etxetresna elektrikoak

Bainugelak

Zeramikak

Horma-armairuak

Beheko suak



LOPETEGI
equipamiento integral de espacios

Uriz kalea, 29
Lakuntza (Nafarroa)
Tel.: 948 57 60 68




www.lopetegi.es



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJ

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



PRIUS



Toyota Prius 22.500 eurotik

EuskoAuto

Karobi industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel.: 943 805 926

BERGARA - ELGOIBAR - PASAIA - Tel.: 902 345 245



TOYOTA

www.euskoauto.toyota.es